Espediente zk.: 2025OZER0009
Gaia: Mintzalaguna zerbitzua - Servicio de Mintzalaguna
Eskatzailea: ERRENTERIAKO UDALA **NAN(IFK)**/DNI(NIF): P2007200E
Kokalekua: ERRENTERIA

PROZEDURA IREKI BIDEZ ETA HAINBAT ESLEIPEN-IRIZPIDEREKIN (LEHIAKETA)
ERRENTERIAN MINTZALAGUN PROGRAMAREN (Mintzalagun taldeak, Gurasolagun taldeak, Hitanolagun taldeak,Mintzakoadrila taldeak) JARRAIPEN, GARAPEN ETA DINAMIZAZIO ZERBITZUA KONTRATATZEKO PRESKRIPZIO TEKNIKOEN PLEGUA.

XEDEA

Lehiaketa honen xedea da "Mintzalagun" programaren jarraipen, garapen eta dinamizaziorako beharrezkoak diren zerbitzuak kontratatzea Errenterian.

Mintzalagun programa bitartez, euskara praktikatzeko aukera eskaini zaie euskalduntze prozesuan hizketarako gaitasuna garatzen ari diren pertsonei, mintzataldeak ("Mintzalagun"--"Gurasolagun"-"Mintzakoadrila" "Hitanolagun") eratuz. Horretarako bidelari (euskaldunberri) eta bidelagunez (euskaldunzaharrez) osaturiko taldeak egiten dira, astean behin ordubete edo ordu eta erdiz euskara praktikatzeko.

Programa honen helburua da euskaraz hitz egin ohi duten pertsonak eta horretarako ohiturarik ez dutenak elkartzea. Alegia asmoa da euskarazko harreman ohiko eta erakargarri baten bidez mintzamena eta jarioa hobetzea, euskaraz hitz egiteko ohitura ezartzea eta harreman sarea zabaltzea, eta aldi berean aisialdirako jarduerak antolatzea hizkuntza-gaitze prozesu horretan dauden pertsonentzat.

Programa hau oso errotua dago jada Errenterian, eta mintzalagun kopuru handia aritzen da praktika hauek egiten.

PROGRAMAREN EZAUGARRIAK

Programak ezaugarri orokor hauek izango ditu:

- Partaideen artean euskararen ahozko erabilera sustatu beharko du, eta hauek herriko euskarazko sareetan txertatu. Arreta berezia jarriz hizkuntzaren ikasketa prozesuko azken fasean daudenengan, euren inguruan mugak baitituzte euskaraz hitz egiteko edo hitz egiteko ohitura ez baitute eskuratu oraindik.
- Taldeak txikiak izango dira (4-6 lagunekoak), elkarrizketan parte hartuko duten partaideek aktiboki parte hartu dezaten bermatzeko, eta talde hauek borondatezko bidelagunek gidatuko dituzte. Lehentasunez Errenteriako herritarrez osaturik egongo dira.
- Partaideek euskarazko harreman ohiko eta erakargarri baten bidez mintzamena eta jarioa hobetzea, euskaraz hitz egiteko ohitura ezartzea eta harreman sarea zabaltzea.
- Astean behin gutxienez elkartu beharko dira mintzamen taldeak.
- Programan parte hartzeko partaideen gutxieneko ezagutza maila: euskaraz komunikatzeko gutxieneko maila behar da.
- Doakoa izango da partaideentzat.

ESKUa1d1fe27-79ea-404a-8071-2424173b4596

ERAKUNDE ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK

Enpresa esleipendunak gutxienez betebehar hauek burutuko ditu:

- Programaren plangintza egin, koordinatu eta dinamizatu; matrikulazio kanpaina eta egitasmoaren komunikazio jarraitua.

- Mintzamen taldeak sortu eta koordinatu.
- Jarduera osagarriak antolatu eta koordinatzea.
- Komunikazio plana iraunkorra burutzea..
- Errenteriako Udaleko Hizkuntza Politika departamentuarekin koordinatzea programarekin zerikusia duen guztiari buruz.
- Ondorengo alderdiak garatuko dituen lan-programa aurkeztu beharko du: zerbitzuaren helburuak, metodologia, programa, giza baliabideak, eta zerbitzuaren ebaluazioa.
- Matrikulazio kanpaina diseinatu eta burutu.
- Egitasmoaren barruko ekintza guztiak prestatzen, antolatzen eta gauzatzen laguntzeko, baita koordinazio lan guztiak egiteko ere koordinatzaile-dinamizatzailea izendatuko du enpresa esleipendunak eta gutxienez astean 8 orduko jarduna izan beharko du.
- Programaren garapenean ohiko komunikazio hizkuntza euskara izango denez gero, kontratuaren exekuziorako esleitutako langileak euskararen ezagutza C1 gaitasun mailaren edo horren baliokideren baten bidez egiaztatuko du (Europako Erreferentzia Markoaren egokitzapenaren 48/2009 Dekretua).
- Publizitatean Errenteriako Udalaren logoa agertuko da, erakunde antolatzaile gisa, eta Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru aldundiarena, erakunde laguntzaile gisa. Horrez gain, prentsa-oharrak egin beharko ditu , hedabideetan zabaltzeko.
- Kontratatutako langileek laneko legeriak eta indarrean dagoen gizarte segurantzak eskatzen dituzten baldintzak bete beharko dituzte.
- Udal Hizkuntza Politika departamentuak bere gain hartuko du kontratuan esleitutako langileen aldaketa eskatzeko eskubidea; kasu hauetan, hain zuzen; egokiak ez direnean, kexak daudelako edo lanbide-profila betetzen ez dutelako, zuzentasunez jokatzen ez dutelako edo euren eginkizuna behar besteko arretaz betetzen ez dutelako edo ez dihardutelako beharrezkoa den zuhurtziaz.
- Dinamizatzaile-koordinatzailea gaixo, bajan, oporretan edo antzeko beste egoeraren batean badaude, esleipendunak berehala jarri beharko du antzeko gaikuntza eta esperientzia duen pertsona.
- Esleipendunak kontratuaren helburuaren publizitatetik eratorritako gastuak berak ordaindu beharko ditu (diseinatzea, inprimatzea, banatzea, eta abar.)
- Esleipendunak jarduera behar bezala funtzionatzeko beharrezko material guztia eman beharko die taldeei. Material hori esleipendunak ordaindu beharko du.
- Esleipendunak bere gain hartuko ditu, lan- eta gizarte-jurisdikzioaren aurrean, langileei beren funtzioak gauzatzean gerta dakizkiekeen istripu guztien ardura. Ildo horretan, esleipendunak beharrezko segurtasun-neurri guztiak emango dizkie bere langileei, eta laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan aplikagarri zaizkion xedapen guztiak bete beharko ditu.
- Esleipendunak bere gain hartuko du langileen jarduketaren ondorioz sor daitekeen erantzukizun zibil oro.
- Horretarako, erantzukizun zibileko poliza bat sinatuta duela ziurtatu beharko du, kontratua gauzatu eta hilabeteko epearen barruan.
- Esleipendunak bere gain hartuko du irteeretan, txangoetan eta kirola egitean segurtasun-baldintzak betetzen direla egiaztatzeko ardura.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legean (otsailaren 18ko 4/2005) ezarritakoa betetze aldera, ez da hizkuntza sexistarik erabiliko tailerretan, eta gizonen eta emakumeen rolak modu estereotipatuan erabiltzen ez direla bermatuko da.

4. ZERBITZUAREN BALDINTZA TEKNIKOAK

Mintzalagun Programa koordinatu eta dinamizatzeko zerbitzuak ondoko lanak egin behar ditu, gutxienez:

- Izen-ematea:

  - Izen-emateari dagozkion komunikazio lanak egin. Kartel eta esku-orrien diseinua, bideoak, gifak eta bestelako euskarriak.
  - interesdunei informazioa eman eta programa azaldu. Dauden euskaltegietan aurkezpenak egin, egitasmoan ikasleak sartzea ahalbidetzeko.

- Izen-ematea bideratu, eta taldeak egin.

ESKUa1d1fe27-79ea-404a-8071-2424173b4596

- Izen-emate kanpaina orokorra ikasturte hasieran (irail/urrian) egingo da. Halaz ere, izen-ematea ikasturte osoan zabalik egongo da.
- Beste izen-emate kanpaina bat urtarrilean egin daiteke.

- Zabalkundea:
  - Mintzalagun programaren bloga, eta sare sozialen (whatsappa, facebook eta Twiter) profila kudeatuko du esleipendunak.
  - Komunikazio kanalak diseinatu, publizitatea, e-posta, kartelak, eskuorriak…
  - Parte-hartzaileen eta taldeen koordinazioa:
- Taldeak osatu.
  -Taldeak martxan jarri (helburuak eta dinamika azaldu).
  - Taldeei jarraipena egin: taldeen egoera, noiz elkartzen diren, bajak, gorabeherak…
  - Pertsona parte-hartzaileen datu-baseak egokitzea eta kudeatzea. Egin beharreko inkestak prestatu, jaso eta emaitzak balioztatu saioak antolatzeko eta taldeak osatzeko.
  -Taldeak urrian jarriko dira martxan eta jarraipena egingo zaie

- Ekitaldiak eta ekintza osagarriak. Esleipendunak ondoko ekitaldiak antolatuko ditu gutxienez:

  - Ikasturte amaierako ekitaldia (ekainean).
  - Bestelako ekitaldi, irteerak eta tailerrak proposatu eta antolatu.
  - Esleipendunak egitasmoaren aldaera bakoitzerako egokiak diren ekintza osagarriak diseinatu eta garatuko ditu.

- Mintzalagunak Udalerriko euskarazko sarean txertatzeko, hauen parte hartzea sustatuko da Udalerrian antolatzen diren euskarazko ekintzetan. Horretarako ekintza horien informazioa emango zaie parte-hartzaileei.

- Programaren jarraipena: programaren jarraipena egiteko ondoko lanak egingo dira, gutxienez:

  - Ikasturtearen amaieran memoria aurkeztuko du esleipendunak, uztailaren 10a baino lehen..

- Mintzalagun programa garatzeko proposatzen den dinamizatzailearen formakuntza, koordinazio iraunkorra eta jarraipena egingo du esleipendunak

- Kontratuaren prezioa: kontratuaren prezioan sartuta egongo dira Mintzalagun Programa koordinatu eta dinamizatzeak eragindako gastu guztiak, joan-etorrien eta antzeko kontzeptuen gastuak barne.
- Taldeak: taldeak 4-6 pertsonakoak izango dira. Dena dela, kasuan kasu, beste kopuru batzuetako taldeak ere egin ahal izango dira.

- Parte-hartzaileak 16 urtetik gorakoak izango dira eta taldean parte hartzeko euskaraz komunikatzeko gutxieneko ezagutza eduki beharko dute..

- Taldeen saioak: saioen helburua euskara praktikatzea da eta, beraz, jarduera ludiko eta egoera informaletan garatuko dira. Bidelagunen egitekoa ez da euskara irakasle izatea,

ESKUa1d1fe27-79ea-404a-8071-2424173b4596

baizik eta taldekide guztiek parte hartzea eta euskaraz egiteko sarea lantzen joaten laguntzea.

IRAUPENA, ORDUTEGIA ETA EGUTEGIA

- Iraupena 3 urtekoa izango da, urtebetez luzatzeko aukerarekin. Baina ikasturtea irailean hasi eta ekainean bukatzen da, ikastetxeetako egutegiaren antzera.
- Antolatzen diren taldeen ordutegia taldeak osatzen dituzten kideek erabakiko dute.
- Programaz arduratzen den koordinatzaile/dinamizatzaileak gutxienez 8 orduko lanaldia izango du asteko.

ORDAINTZEKO ERA

Honela ordainduko da:

Hilero aurkeztuko diren fakturen bidez.

Fakturak formatu elektronikoan aurkeztu beharko dira Gipuzkoako Foru aldundiko Faktura Elektronikoen sarrera- puntuaren bidez.

ZERBITZUA GARATZEKO BALIABIDEAK

Esleipendunak kontratuaren xede den helburua betetzeko beharrezkoak diren giza baliabide eta baliabide tekniko nahiz materialak edukiko ditu.

Giza baliabideak.

Enpresa esleipendunak bermatu beharko du esleipen honen xede diren lanak burutzeko pertsonala baduela esleipena irauten duen denboran, zerbitzua etengabe ematea bermatuko delarik. Zerbitzuaren kudeaketarako, enpresa esleipendunak honako giza baliabideak bermatu beharko ditu gutxienez:

- Kontratuaz eta exekuzioaz arduratuko den solaskide bakarra.
- Izaera teknikoko pertsona programak eskatzen dituen lanak koordinatu eta dinamizatuko dituena (hedapena, bidelagunak bilatzea, partaideen izen-ematea eta talde desberdinetan antolatzea, pertsonen eta jardueren koordinazio eta jarduera osagarrien eskaintza), euskarako C1 maila edo baliokidea egiaztatu beharko duena.

Enpresa esleipendunak edozein gorabeheraren aurrean(lanerako ezintasunak, oporrak, edo beste edozein gorabehera) bere ardurapeko langileen ordezkapena aurreikusia beharko du , pertsona hori gaitze bera duen beste batengatik ordezkatua izango delarik.

Ordezkapen hori aldez aurretik Errenteriako Udal Hizkuntza Politika departamentuari aurkeztu beharko zaio, idatziz langile berriaren curriculumarekin batera. Ordezkapen hori eraginkorra izateko zerbitzua koordinatzeaz arduratzen den Euskara Teknikariak ontzat eman beharko du.

Baliabide teknikoak

Jardueraren garapenerako lan metodologia eta beharrezkoa den materiala esleipendunak jarriko du.

Esleipendunaren kontura joango dira kontratua bete eta programako jarduerak garatzetik ondorioztatzen diren gastuak, hedapen edota izen-emate kanpainak barne. Ohiz kanpoko eran, eta hala erabakitzen badu Udalak izen-emate kanpaina osatu ahal izango du ezohiko baliabideak jarriz.

ESKUa1d1fe27-79ea-404a-8071-2424173b4596

Hizkuntza eskabideak bermatzeko baliabideak

Esleipendunak baliabide nahikoak eduki beharko ditu zerbitzu osoa Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntzetan bermatzeko, bai jende aurreko pertsonei dagokienean, bai idatziz nahiz ahoz egindako edo emandako seinaleztapen, errotulazio edo argibideei dagokienean.

Programaren garapenean ohiko komunikazio hizkuntza euskara izango denez gero, kontratuaren exekuziorako esleitutako langileak euskararen ezagupena C1 gaitasun mailaren edo horren baliokideren baten bidez egiaztatuko du (Europako Erreferentzia Markoaren egokitzapenaren 48/2009 Dekretua).

LANGILEEN ERREGIMENA

Aurreikusitako jardueren antolaketarako egin beharreko zerbitzu edo pertsona fisiko nahiz juridikoen kontratazioak, esleipendunak egingo ditu bere kontura bakarrik eta indarrean dagoen legediaren arabera.

Enpresa esleipendunarenarentzat lan egiten duen langileriak dagokion lan kontratuaren babespean egongo da. Aipaturiko langileriak ez du inolako lan harremanik lortuko Errenteriako udalarekin, lan harremana enpresa esleipendunaren baitan soilik egongo baita, zeinak betebehar eta eskubide guztiak izango baititu nagusi-enpresaren izaera duen aldetik aipaturiko langilearekiko lan-legediarekin bat etorriz; enpresa esleipenduna eta bere langileen arteko obligazioetatik ondorioztatutako erantzukizuna izango ez delarik, nahiz eta kaleratzeak eta hartzen dituen neurriak kontratua bete edo ez bete, eten, edo interpretatzearen ondorio zuzena edo zeharkakoa izan.

PROGRAMAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Zerbitzuaren jarduketa guztiak barrutik eta kanpotik ebaluatuko dira, bai enpresaren eta Udalaren aldetik, bai zerbitzuaren erabiltzaileen aldetik

AURKEZTU BEHAR DIREN DOKUMENTUAK

Eskaintza teknikoak atal eta eduki hauek izango ditu, gutxienez:

a. Programaren oinarri metodologikoak.
b. Izen-ematea eta taldeen antolaketa bideratzeko proposamena (komunikazio plana barne).
c. Taldeen jarraipena egiteko modua eta maiztasuna, proposamena.
d. Ekitaldi eta jarduera osagarrien proposamena.
e. Jarraipen batzordearekin programaren jarraipena egiteko modua.
f. Proposatutako giza baliabideak eta bitartekoak:
g. Lan guztien kronograma.

EKS | CSV: ESKUa1d1fe27-79ea-404a-8071-2424173b4596
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:	2025OZER0009-BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA eu/DOCUMENTO CONDICIONES TÉC

Sinatzailea 1 / Firmante 1: JOSE MARIA JAUREGI GARMENDIA - 72436741N
Euskarako teknikari koordinatzailea
Data / Fecha: 2025/06/16 11:23:45